



EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2021-2022ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiaren eskaerak ebazteko 2. behin-behineko proposamena egiten duena.

2021eko ekainaren 1eko aginduaren bidez (2021eko ekainaren 30eko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2021-2022ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2021eko ekainaren 1eko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiek banaka aztertu dituzte ebazpen honen I. eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT

Lehen artikulua.- Deialdi hori ebazteko bigarren proposamenaren berri ematea 2021-2022ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

Bigarren artikulua.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 2a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria